

LAN ETA GIZARTE-SEGURANTZAREN ARLOKO ZUZENBIDEKO ADITUAK

NOR DA LAN-HARREMANETAKO GRADUDUNA?

- Lan-harremanetako graduduna Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduko unibertsitate-titulazioa daukan profesionala da.
- Zuzenbideko profesional honek, beste lanbide batzuekin batera, behar besteko gaitasuna dauka, lanaren arloan epaitegien zein auzitegien aurrean jarduteko enpresen nahiz langileen ordezkari moduan.
- Profesional hau aditu laboralista da, eta enpresetako giza baliabideak zuzendu eta kudeatu egiten ditu.
- Profesional honek enpresak kudeatzen ditu lan, zerga eta kontabilitatearen arloan. Laneko arriskuen prebentzioa. Bitartekaritza. Atzeritartasuna.

NON AURKITU LAN-HARREMANETAKO GRADUDUNA?

- Haien titularitatepean lan eta zerga arloko gaiei buruzko aholkularitza eskaintzen duten enpresetan eta bulego profesionaletan.
- Unibertsitatean, laneko kudeaketaren eta lan zein Gizarte Segurantzaren arloko zuzenbidearen inguruko prestakuntza ematen.
- Enpresa handietako zuzendaritzan, langile-buru eta Laneko Arriskuen Prebentzioko goi-mailako teknikari moduan.
- Sindikatuetan, administrazio publikoan.
- Lan-arloko arbitro, bitartekari, gizarte zein lan arloko auditore eta laneko orientatzaile lan egiten.

"LANAREN MUNDUAN DUZUN ADITUA DA LAN-HARREMANETAKO GRADUDUNA"

Aholkularitza eta kudeaketa enpleguaren eta kontratazioaren arloan

Ordezkaritza gizarte-arloko epaitegi eta auzitegien aurrean

Gizarte-jurisdikzioaren aurretiko adiskidetzarako egintzak

Administrazio publikoko aurretiazko erreklamazioak

Gatazketarako eta negoziaketa kolektiborako bitartekaritza

Gizarte eta lan arloko politiken diseinua

Gizarte Segurantzaren arloko prozedura administratiboak

Laneko ikuskaritza

Era guztietako pentsio eta prestazioen inguruko aholkularitza eta izapideak: (langabezia, ezintasuna, baliaezintasuna, alarguntza, erretiroa...)

Dirulaguntza, hobari eta laguntzen izapideak eta kudeaketa

Zerga eta kontabilitate arloko aholkularitza

Laneko arriskuen prebentzioa

Enpresen sorrera

Soldaten ordainagirien prestaketa

Zerga-bilketa eta kotizazioa

Atzeritartasunaren arloko zuzenbidea (emigrazioa eta immigrazioa)